

Donostia, 2019ko uztailaren 19a

OSOKO BILKURAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

KRISI KLIMATIKOARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Marta Huarte Pañok, Elkarrekin Donostia udal taldearen zinegotziak, indarrean den Osoko Bilkuraren Araudi Organikoaren 98. artikulua babesean, hilabete honetako Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean egin interpelazioaren ondoriozko MOZIO HAU aurkezten du, OSOKO BILKURAN EZTABAIDATZEKO.

JUSTIFIKAZIOA

2019ko urtean dagoeneko inolako zalantzarik gabe esan dezakegu, are zientziaren abala dugula, muturreko ingurumen krisi egoeran gaudela, etxea (Planeta) erretzen ari zaigula. Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Aditu Taldeak (IPCC), Nazio Batuenak, iaz urte amaieran emandako txosten berezi batean esan zuen jada “aldaketa bizkorak, sakonak eta orain arte ikusi gabeak” egin behar direla gure gizarteetan, Lurra 1.5 °C baino gehiago ez dadin berotu mende amaierarako. 2019ko martxoan argitaratutako NBERen Ingurumenari buruzko Mundu Txostenak ere ohar egin zuen airearen kutsadurak 4,5 eta 7 milioi pertsona bitartean hilko dituela, urtean, 2050 arte. Baina, zalantzarik gabe, daturik berrien eta etsigarriena Biodibertsitatearen eta Ekosistema Zerbitzuen Gobernu Arteko Plataformak (IPBES) maiatzean argitaratutako analisiak emana da, horren arabera milioi bat animalia eta landare espezie baitaude galtzeko zorian. Txosten horrek, era berean, “aldaketa eraldatzaile bizkor eta sakona” eskatzen du, “kontsumitzen, produzitzen eta merkaturatzen dugun moduari dagokionez”; eta ezinbestekoa jotzen du, gainera, aldaketa hori.

“Garapen jasangarriko” 25 urteko epeak ez du balio izan nahi genituen helburuak iristeko, ezta maila globalean horretarako bide egokian jartzeko ere. Azken hamarkada hauetako jarduera politikoak jorratu dituen herritarren kontzientziatze eta sentsibilizaziorako jarraibide guztiak,

Rio'92ko hitzalditik orain artekoak, beharrezkoak dira, bai kontzientziagatik bai etikagatik, baina zeharo ezgai klimaren erronkari heldu ahal izateko. Arazoaren sorburua gure produkzio eta kontsumo sistema da, kontzeptu zeharo zentzugabe eta jasanezinak sortu baititu, hala nola “erabili eta botatzea” edo zaharkitze programatua. Gure sistema kapitalistak inplementatutako ekonomia globala kolapso ekologikora garamatzen azeleratzaile bat da. Ez dugu larrialdi klimatikoari aurre egiteko inolako aukerarik izango, non eta ez dugun gure eredu ekonomikoan aldaketa bizkor, sakon eta orain arte ikusi gabeak jorratzera jotzen (NBEk dioen moduan). Garapen jasangarria oximoron bat da, hazkunde ekonomiko mugagabe baten eredu elikatzean oinarritua (berotze globala eragiten duten erregai fosilen errekontzian oinarritua) planetako bitartekoak, aldiz, mugatuak direnean.

Egoeraren aurrean, planetako gazteak altxatu egin dira, politikaren munduari klima-aldaketaren kontrako benetako ekintzak eskatzeko. Mobilizazio hori Greta Thunberg gaztearekin hasi zen joan zen abuztuan, haren Suediako institutuaren aurrean, eta joan den martxoaren 15ean iritsi du goia mundu osoko milioika gaztek parte hartu zuten mundu mailako greba deialdiarekin.

Gure udal taldekook uste dugu Donostiak beharrezko osagai guztiak dauzkala klima-aldaketaren kontrako politika eraginkorrak egoki garatzeko; are gehiago, uste dugu hiriak bozgorailu lana bete dezakeela nazioarte mailan, udal politiketan benetako aldaketa bultzatuz horretan.

Alabaina, aurreko legegintzaldian Klima 2050 Estrategia diseinatu arren, ez dugu aldaketa sakonik ikusten hiria eta udal jarduera administratzeko moduan. Asmo handiko ekintzak behar ditugu, eta premia-premiazkoak dira gainera. Klima-aldaketaren kontrako borrokaren eta egokitzapenaren gaian ez dugu transbertsalitaterik ikusten.

Ekintza nagusietako bat larrialdi klimatikoaren deklarazioa da. Maiatzean, Erresuma Batua izan zen larrialdi klimatikoaren deklarazioa egin zuen lehen gobernu nazionala. Horren ondotik Eskozia, Gales, Irlanda, Kanada eta Frantzia etorri dira. Eta baita hiri eta lurralde garrantzitsuak ere, hala nola: Kataluniako gobernuak, New York, San Frantzisko, Sydney, Auckland, Londres, Vancouver, Amsterdam, Milan, Alemania, Suitza eta Frantziako toki gobernuak...

Larrialdi klimatikoak deklaratzeko eskatzen du lehentasun ordena berria ezartzea; horretan, klima-aldaketara egokitzeko zein horren ondorioak arintzeko ekintzak lehentasunezko bihurtzen dira. Udalek eskura dauzkaten bitarteko guztiak krisi klimatikoari eta horri lotutako arazoei aurre egitera bideratzea ere eskatzen du. Larrialdi klimatikoaren deklarazioak berekin dakar biztanleria osoari zuzendutako hezkuntza, prestakuntza eta kontzientziazio prozesu bat abiatzea, krisi ekologikoaren egiari eta behar-beharrezkoa zaigun aldaketa itzelari buruzko bat alegia.

Batzordean, gobernuak gaiarekiko sentsibilitatea erakutsi zuen, baina nahiko iheskor agertu zen neurri zehatzei zegokienez. Aipatu du Eusko Jaurlaritzaren klima-aldaketari buruzko lege berria aztertu behar dela, aztertu behar diren eta zehaztaperen handiagoa behar duten gauzak direla, eta azaldu du udal emisioen ziurtagiri bat, klima-aldaketarako barne plan bat eta planen integrazioa egin behar duela, NBEren GJHeekin lerrokatzeko. Dokumentuak erredaktatu bai, baina orain ekintza zehatzak garatzea da ezinbestekoa.

KONTROL MOZIOA

- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio analisi kuantitatibo eta kualitatiboa egitea, departamentu eta zerbitzuka, legegintzaldi honetan krisi klimatikoari aurre egiteko hartuko dituen neurriei dagokienez, horiek kliman izango duten inpaktua, Donostia Klima 2050 Planaren gainean izango duten eragina, eta NBEren Garapen Jasangarrirako Helburuekiko lerrokatzea ere aztergai harturik, betiere eskumeneko dituen gaiei dagokienez.
- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio neurri zehatz eta premiazko batzuk identifikatzea eta horiei aparteko finantzaketa eskaintzea, hiria Larrialdi Klimatikoko egoeran deklaratzearren.
- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio Ingurumeneko Aholku Batzorderako premiazko deialdia egitea, Larrialdi Klimatikoaren deklarazioa diseinatzeko.
- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio partaidetza prozesu bat garatzea, hiria karbonogabetzeko prozesuan herritarrak inplikatzearren.

- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio herritarrak animatu ditzala 2019ko irailaren 27rako aurreikusten den klimarako mundu greban parte hartzera.
- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio udal espediente berrietan (hirigintzakoetan behintzat) inpaktu klimatikoari buruzko txostena ere jasotzea, kasuan kasuko obra edo zerbitzuak berotegi efektuko gasen emisioetan eta klimari lotutako bestelako aldagaietan duen eragina aztertzearen.
- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio herritarrei, bando baten bitartez, mozio honen berri ematea.
- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio mozio honetako puntu onartuak aditzera ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari, Trantsizio Ekologikorako espainiar ministerioari eta Europako Batzordeari.

Marta Huarte Paño,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia.